

## **Liburu azokak Itsasondon eskaintza ezberdinekin**

Apirlak 23, Liburuaren nazioarteko eguna dela eta, ekintza bereziak egingo dira Itsasondon data horren inguruan. Izan ere, herriko liburutegi berria osatu ostean, hainbat eta hainbat liburu kaxetan gelditu dira. Liburu horiek zaborretara bota nahi ez dituztenez, herritarrei aukera eman nahi zaie liburu horiek eskuratzeko eta aukera desberdinak jarri dira.

Gazteria sailak antolatuta, bertan ludotekako eta gaztelekuko haurrak izango dira arduradunak. Hala, hilaren 22tik 26ra, goizeko ordutegian, liburutegitik kanpo gelditu diren liburuak hartzeko aukera izango da udaletxean: 5 liburu 3 euroren truke.

Hilaren 24an, berriz, ludotekan, haur liburuaren azoka txikia egingo da: bi liburu jostailu baten truke. Eta 26an, arratsaldeko 17:00etatik 19:30era, azoka egingo da plazan, gaztelekuak antolatuta, deskontu bereziekin.